

Tabakoa, kokaina eta bihotzeko arazoak

Tabakoa erretzea bihotzarentzat kaltegarria da, eta kokaina hartzea ere bai, baina biak hartuta efektuak are eta larriagoak dira. Estatu Batue-



Tabakoa erretzea bihotzarentzat kaltegarria da, eta kokaina hartzea ere bai, baina biak hartuta efektuak are eta larriagoak dira.

tan Dallas-en kardiologoek arteria koronarioetan arazoak zituzten 40 erretzailerekin azterketak egin dituzte. Zigarroa erre ondoren odol-basoaren diametroa % 5 murrizten zen,

eta kokaina-hartualdi bakoitzean % 10, baina biak batera hartuta murrizketa % 20koa dela konturatu dira. Ondorioz, miokardioan oxigeno gutxiago izaten da eta bihotzeko arazoak izateko arriskua handiagoa.

Azukre-maila erlojuan

UIm-eko unibertitatean diabetearen teknologiaz arduratzen den erakundeak Deutsche Aerospace-ren laguntzaz odoleko azukre-maila etengabe neurtzen duen prototipoa lortu du. Neurgailu honek odolean normala baino azukre-maila handiagoa detektatzen badi, soinu bat ateratzen du.

Aparatuak hiru elementu ditu: zunda, sentso-rea eta ebaluazio-sistema. Egunero pazienteak sabelean zunda sartzen du (hogeita lau ordutan eduki behar du bertan). Horrez gain pazienteak 800 gramo pisatzen dituen glukosa-sentsorea du zundari konektaturik. Minutuoro azukre-maila neurtu eta esku-muturreko erlojuan iragartzen da.

Erloju horri esker insulिनako terapian azukre-mailaren gora-behera handiak metodo klasikoekin baino askoz ere errazago saihesten dira. Sistema asmatu dutenak aparatua miniaturizatzen ari dira

orain, erabiltzeko erosoagoa izan dadin.

Luzatzen diren nerbioak

Irudi honetan ebakitako bi nerbio erakusten dira. Beheko nerbioan bi muturrak ez dira inoiz elkartuko, baina goikoan, bi muturrak luzatzen hasiak daude eta elkartu egingo dira.

Hautsitako nerbioak lotzea da neurologiak duen itxaropenetako bat. Orain arte, izan ere, bizkarrezurreko muinean kalteak izandako jendeak sendatzerik ez du izan, baina Ioannis V. Yannas injineruak Massachusetts-ko Teknologia Institutuan aurrerapen handiak egin ditu. Yannas jaunak nerbioak luzatzeko bide bat asmatu du. Kolageno-zuntzeko eta azukre konplexuzko (glikosamino-glikan izena dute) sare bat eskaintzen die euskarri gisa. Sarea oso tutu finean izoztu egiten da izotz-kristalak egin

arte. Kristal horiek luzarritzen direnean, poro edo "zuloak" agertzen dira eta horietatik luzatzen dira kaltetutako nerbioak. Gero, sare hori kolagenasazko entzima batek deuseztu egiten du.

Saguekin egindako saiakuntzetan emaitzak ez dira erabat onak izan. Nerbioak ongi luzatu dira, baina muturrak elkartu ondoren kaltetu aurreko dentsitaterik ez dute lortu eta garraiatzen dituzten pulsu elektrikoen kopurua txikiagoa da.

Yannas jauna bere teknika hobetzen ari da, eta nerbioak 7,5 mm-raino luzatzea lortu du, eta badirudi emaitzarik onenak sareko poroak nerbio-axoiaren tamainakoak direnean lortzen direla. Teknika hobetu eta saiakuntzak gizakiekin egitea falta da orain.



Irudi honetan ebakitako bi nerbio erakusten dira. Beheko nerbioan bi muturrak ez dira inoiz elkartuko, baina goikoan, bi muturrak luzatzen hasiak daude eta elkartu egingo dira.

